

### 3.FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Proiektu honetan hainbat enpresen edo hornitzaile nagusien laguntza beharko dugu. Hainbat enpresekin harremanetan jarriko gara gure banaketa eta ekoizpen prozesua aurrera atera ahal izateko.

Gure enpresaren banaketa prozesuan hainbat ekintza ezberdin egingo ditu eta horretarako beste enpresa batzuen laguntza beharko dugu horretarako. Gure ezta eta beste produktuak etxez etxe banatu nahi ditugu, uste dugulako gure bezero asko pertsona nagusiak izango direla, eta horren ondorioz zailtasunak izango dituztela denda fisiko batera joateko edo internetez erosteko. Horren ondorioz, banaketa enpresa batekin elkartzea edo lotzea izango litzateke onena.

Gainera, gure produktuak eskaini ahal izateko, mota ezberdineko ontziak behar ditugu. Beraz, ontziak ekoizten dituen enpresa batekin lotura izan beharko dugu. Horrela ezta banatzeko ontziak lortu ahal izango ditugu.

Hauek izango dira behar izango ditugun hornitzaileak, kontuan hartu behar dugulako hornitzaile garrantzitsuenak erleak izango direla, haiek emango digutelako gure ekoizpenean behar- beharrezkoak diren lehengaiak.

